


ITSASONDO-ko BASERRIAK

BASERRIKO TRESNAK
OHITURA eta USADIO ZAHARRAK



Egilea: GOIHERRIKO EUSKAL ESKOLEN ELKARTEAREN
ITSASONDOKO TALDEA

Babeslea



Caja de Ahorros Municipal
Aurrerki Kutxa Municipal



Aurrerki Kutxa Municipalak

Babestutako argitarapena

Edición patrocinada por la

*Caja de Ahorros Municipal
de San Sebastián*

(Solus)

HITZAURREA

=====

Herritar

Hemen doakizu ale berezi bat, eta tituluak dioen bezala baserri eta usadio edo ohitura zaharretaz iharduten dena.

Gure herria hiztegiz ahultzen ari den unean, eta gure hizkuntza betirako gal ez dezagun, gure aintzinakoek kontatutako historiak aipatzea beharrezkoa ikusi dugu.

Gure lana zera izan da: alde batetik, lan tresna batzuen izenak eta beraien erabilpena, eta bestetik, zenbait ohitura zahar zuri adieraztea.

Halaz ere makina bat tresna zahar eta ohitura gelditzen dira aipatzeke hor zehar.

Liburu honen zatiak hauek dira:

- Herriko baserriak
- Baserriko tresnak
- Ohitura eta usadio zaharrak

Eta azkenik, eskertu nahi diegu era batera edo bestera lagundu diguten baserritar eta herritar guzti-
ei, azken finean guztiok izan bait gara lan honen egile.

ITSASONDOKO BASERRIAK

BASERRIA	NOIZ ERAIKIA	ALDAKETA BEREZIAK	ZE MATERIALEZ EGINA	BASERRIAREN BANAKETA	GAUR EGUNGO ABEREA
AURREKOETXE	1692 ⁺ 1782	1951n horman zeu- den olak kendu zi- tuzten.	Harri, lur, karea	Ganbara, gelak Sukaldea, ikuilua Upategia	4 behi, 5 txekor
DOMINGOTEGI	1692 ⁺		Egurra (haritza, gaztaina), troska eta harria	Ganbara Sukaldea, gelak, ikuilua Bodega	4 behi, 4 txekor
GAKOETXE	1775 ⁺		Harria, lurra	Ganbara Ikuilua, gelak	4 behi
ARTETXE	1949		Harria, ladrilua	Ganbara Gelak Sukaldea, gela, ikuilua	3 behi, txekor bat
IRAOLA ETXEBERRI	1775 ⁺		Harria, lurra	Ganbara Ikuilua, gelak Upategia	5 behi, 6 txekor

BASERRIA	NOIZ ERAIKIA	ALDAKETA BEREZIAK	ZE MATERIALEZ EGINA	BASERRIAREN BANAKETA	GAUR EGUNGO ABEREA
IRAOLA TXIKIA	1660 ⁺		Harria, lurra	Ganbara Ikuilua, sukalde, gelak Konejutehia	4 behi
IRAOLA TXIKI	1660 ⁺	Etxe ondoko gran- ja, 1967 urtekoa da.	Harria, lurra	Ganbara Ikuilu, sukalde, gelak Bodega (konejutehia)	20 behi, 6 bigai, 6 txekor, zezen bat
IRAOLA ARRESEA	1692 ⁺	Aurreko fatxada 1945 urtean be- rritua.	Harria, lurra. Obra berrian hormi- goia.	Ganbara Ikuilua, gelak, sukaldea Bodega	4 behi, 5 txekor
IRAOLA ARRESEA	1692 ⁺		Harria eta lurra	Ganbara Ikuilua, gelak, sukaldea Bodega	4 behi, 17 txekor
IZARRE	1659 ⁺		Haritza, harria, lu- rra, tupa	Gelak, ganbara Sukaldea, ikuilua	2 behi

BASERRIA	NOIZ ERAIKIA	ALDAKETA BEREZIAK	ZE MATERIALEZ EGINA	BASERRIAREN BANAKETA	GAUR EGUNGO ABEREAK
SAROB	1951		Harria, hormigoia Karea	Ganbara Gelak, ganbara Ikuilua	6 behi, 8 txekor, idi pareta eta behorra
SAROB	1920			Ganbara Gelak Ikuilua	8 behi, 7 txekor, idi pareta, zaldi, astoa
OTEIZABAL	1936		Egurra, ondarra, harria, porlana	Ganbara Ikuilua, Gelak Bodega	2 behi, 60 ardi
AGARRE	1780	1942 urtean 20.000 pezeta kostatu omen zen	Harria, lurra. egurra 1942. go obran hor- migoia sartu zen.	Ganbara Gelak, ikuilua Upategia	8 behi, 7 txekor, idi pareta
MENDIBIL	1659 ⁺	1910 en, gaineke aldearekin egin zen	Harria, lurra	Ganbara Gelak, sukaldea Ikuilua	2 behi txekor bat

BASERRIA	NOIZ ERAIKIA	ALDAKETA BEREZIAK	ZE MATERIALEZ EGINA	BASERRIAREN BANAKETA	GAUR EGUNGO ABEREA
IBARRE	1860 ⁺	1967an berritua izan zen	Harria, lurra, egurra	Ganbara Gelak Ikuilua, sukaldea	2 behi, 2 txekor, zaldi bat
KANPOS-ENE	1860 ⁺	1967an erabat be- rritua izan zen. Zubia 1928an	Harria, lurra, karea, troska, gaztain eta haritza	Ganbara Gelak, ikuilua Upategia	6 behi, 6 txekor, zaldi bat
ITURRIOZ	1860 ⁺	1920ean altxatu eta zabaldu	Harria, lurra	Ganbara Sukaldea, ikuilua, gelak Upategia	Astoa eta ahuntzak
SAN JUAN	1692	1962an ikuilu berria egin zen	Harria, lurra, egurra	Ganbara Gelak Sukalde, ikuilua	2 behi eta txekor bat
LUKASAIN	1917	Tolarea 1930ean egin zuten	Egurra, lurra, harria	Ganbara Gelak, ikuilua Upategia	3 behi, 2 txekor, mando bat

BASERRIA	NOIZ ERAIKIA	ALDAKETA BEREZIAK	ZE MATERIALEZ EGINA	BASERRIAREN BANAKETA	GAUR EGUNGO ABEREAK
LUKASAIN	1712 ⁺	1919an puskea erantsia	Harria, lurra, onda- rra, haritza, gaz- taina	Ganbara Ikuilua, gelak Bodega	6 behi, 6 txekor
LASARTE	1961		Hormigoia, ladrilua	Sapaia, ganbara Gelak, ikuilua Garajea	5 behi, 5 txekor, behorra
ZUBIN	1978		Hormigoia, ladrilua	Ganbara Gelak, ganbara Garajea, ikuilua	6 behi, 7 txekor behorra
LIZARDI	1890		Harria, lokatza, egurra	Ganbara Ikuilua, sukaldea, gelak Iputaia	2 behi, 2 txekor, zaldi bat
SARASOLA GOIKOA	1920		Harri eta lurra	Ganbara Gelak Ikuilua, sukaldea	7 behi, 4 txekor

BASERRIA	NOIZ ERAIKIA	ALDAKETA BEREZIAK	ZE MATERIALEZ EGINA	BASERRIAREN BANAKETA	GAUR EGUNGO ABEREA
SARASOLA TXIKI	-	Pusketa bat erantsia	Harria eta lurra	Ganbara Gelak Ikuilua	Ardi batzuk
ERREZOLA	1870		Harria eta lurra	2 ganbara Ikuilua, sukaldea, gelak	8 behi, 10 txahal
URRUTI BEHERA	1938		Egurra, harria, ondarra	Ganbara, gelak Ikuilua	12 behi
URRUTI GARAIOA	1936		Harria, buztina	Ganbara Gelak, mandioa Ximaurtegi, sukaldea, ikuilu	3 behi, 5 txekor
URRUTI BARRENA	-	Ataria (1957)	Egurra, harria, buztina	Ganbara, sapaia bizitza, mandioa 2 ikuilu	11 behi
ERTZILE	-	Paretak altxatu (1934)	Egurra, harria, lurra	Ganbara, gelak Ikuilu	7 behi, 8 txekor

BASERRIA	NOIZ ERAIKIA	ALDAKETA BEREZIAK	ZE MATERIALEZ EGINA	BASERRIAREN BANAKETA	GAUR EGUNGO ABEREAK
SALETXEBERRI	1930	Frontoia (1980) Estalpea (1940)	Harria eta porlana	Ganbara, gelak Sukaldea, ikuilua, kome Bodega dorea	-
ETXEBERRI AZPIKOA	-	1871ean berritua	Harria eta lurra	Ganbara Sukaldea, ikuilua Upategia, gelak	6 behi, 6 txekor, 2 idi
ETXEBERRI GOIKOA	1946		Harria eta hormigoia	Ganbara Gelak Sukaldea, ikuilua	-
ABALI-ERDI	1780	1912an konpondua	Harria, tupa, lurra	Ganbara Mandioa, gelak Ikuilua, sukaldea	3 behi, 4 txekor
ABALI-GOENA	1922	1943an pusketa bat erantsia	Harria, buztina Geroztik hormigoia	Arto ganbara Gelak, ganbara Gela, sukaldea, ikuilua	9 behi, 6 txekor

BASERRIA	NOIZ ERAIKIA	ALDAKETA BEREZIAK	ZF MATERIALIEZ EGINA	BASERRIAREN BANAKETA	GAUR EGUNGO ABEREA
ABALI-GOENA	1922	1943an pusketa bat erantsia	Harria, buztina Geroztik hormigoia	Ganbara Gelak, ganbara Sukaldea, ikuilua	10 behi, 9 txekor
MENDIOLA BARRENA	-		Harria eta lurra	Ganbara Ikuilua	10 behi
MENDIOLA ARTEA	-	1968an berritu batzuk egin ziren	Harria, egurra, lurra	Ganbara Gelak, ganbara Sukaldea, gela, ikuilua	7 behi, 5 txekor
MENDIOLA ARTEA	-		Harria eta lurra	Ganbara Gelak Trasteroa, sukaldea	-
MATXINEA	1866	1910ean pusketa bat erantsia 1948an berritua izan zen	Ladrilu, hormigoia	Ganbara Gelak, ganbara Sukaldea, ikuilua Bodega	5 behi, 2 bigaia

BASERRIA	NOIZ ERAIKIA	ALDAKETA BEREZIAK	ZE MATERIALEZ EGINA	BASERRIAREN BANAKETA	GAUR EGUNGO ABEREA
MENDIOLA GOENA	1880	1958an puska be- rri bat erantsia	Harria, lurra. Zati berriak hormigoia du	Gelak, 2 ganbara Sukalde, ikuilua	8 behi, 3 txekor
IPARRAGIRRE	1922		Harria, lurra, egurra	Gelak, ganbara Sukalde, jangela, ikuilua	Oiloak
ALTZAGARATE	1934		Harria, hormigoia	Ganbara, gelak Sukalde, taberna, ikuilua	12 behi


(+) Oharra: Udaletxeko artxiboetan azaltzen denez, ez dakigu ziur baserria noiz egin zen, baina urte horretan behintzat egin zegoen.

Aipaturiko baserritaz gain, badaude beste baserri batzuk erdi-hutsik edo lanerako abererik ez dituztenak. Hauek dira:


Antzartegi	Olate	Sorabil	Etxeberri
Urkiona	Saltxeberrri	Azubi	Itsasaga
Urkiona-azpi	Bekoetxe	Larregi	Idoiaga


LABORANTZA ETA GARRAIDKO TRESNAK

GOLDEA




Lurra biratzeko erabili ohi da. Aitzairu eta burdinezkoa. Euskal-herrian golde mota desberdin erabili izan ohi dira. Hemen ezagunena golde handia dugu.






BESABEA


Lurra biratzeko tresna bat da. Bi mota ezagutzen dira:
Zazpi hortzekoa: artoa erein behar denean erabiltzen da.
Bost hortzekoa: artoa jorratzeko erabiltzen da.



MARKAK




Hazia bota aurretik eta hau zuzen botatzeko, marrak
egingo dituen tresna bat da.




GOLDEA

ARREA




Egur eta burdinez egina dago. Lan tresna honekin, hazia erein aurretik ematen zaio lurrari azkeneko ikutua.



LAIA


Lurra biratzeko erabili izan den altzairuzko tresna bat da. Baserri gehienetan gordetzen da oraindik. Desberdinak dira eskubiko edo ezkerreko eskurako direnean.

NABARRA




Lurra laiatu aurretik, lurra markatzeko erabiltzen zen.


OLA EDO ESPARDA




Zurezkoa da. Zurezko ola (tabla) edo gurutzadura bat darana. Lurra goldatu ondoren, zokorrak txikitzeko erabaltzen da. Zurezko ola edo gurutzadura horren gainean, harriak jartzen dira, pixua egite arren.



EREINGAILU



KARROMARROA




Lurra harrotzeko eta garbitzeko erabili ohi da.

ARTO ATATZAILEA




Artoa ateratzeko tresna.

GARI GARBITZAILEA




TRAMAKULOA



Babea eta artoa txikitzeko tresna.
Hortzak galtzailuzkoak, gaineran-
tzekoa egurrezkoa.

SEGA



Ebaketarako lan tresna ezaguna da sega. Ebaki orri okerrantxa du eta mutur zorrotza. Kirtena zurezkoa da; burni euskarriaren bidez lotzen zaio sega-orriari eta txabetaz estutu. Bi kirten ditu eskubanakin heltzeko, eta erabili behar dunaren neurrira egokituak izaten dira.

SEGAPOTOA




SEGA-ARRIA

Sega-orria zorrozteko erabiltzen da segarria. Eta hau gordetzen da segapotean.

Segapotea zureko omtza txiki bat da, zati osokoa. Egur eze nahiz igarren landue. Sega lanean, nekazariak jardun artean segarriak eze iraun dezan, ur pixkat darama ondoan. Badu kirtentxoak eta bere hortatik lotzen du segalariak ugela (zinturóiez) gerrian.

TXINGURIA




SEGAMAILUA

Txinguria sega pikatzeko eta zorrozteko da.


Segamailua segaren ahoa berdintzeko eta koskak kentzeko da.

ESKUAREA




Belarra biltzeko erabiltzen da. Egurrezkoa da.

KAKOLA



Egurrezkoa da eta bastidore baten antza du. Baserri-tar bakoitzak belarra eraman behar zuen erabiltzen zuen.

AITZURRA



Lurra lantzeko erabiltzen den tresna da.

Gure artean mota askotako aitzurrak ezagutzen ditugu :

- Onde-atxurre : Aitzur hau neurri handinekoa da. Zulo handiak egiteko erabiltzen da, bere itxurak lurra ateratzen uzten bait du. Tresna hau, pinuak aldatzeko erabiltzen da gehien bat
- Jorra-atxurre : Baratzeko lan gehienetan erabiltzen dugun tresna da. Lurra jorratzeko erabiltzen da.
- Sits-atxurre : Simaurra lanetan erabiltzen da.

HORTZ PIKOA




Lurreko lanetan erabiltzen da. Batez ere lurpeko barazkiak ateratzeko.


IKATZ ATZURRA



Ikatza harrotzeko erabiltzen da.




SARDEK



Lurra giratzeko erabiltzen da. Hortzak oso sendoak ditu.

Oso erabilia ximaurra biltzeko eta belarra jasotzeko.



LAU HORTZEKOA


Aitzurraren antzekoa lau hortzakin. Ximaurra aitzurtzeko eta belarra gurdian kargatzeko erabilia.



IGITAIA


Belarra ebakitzeko erabilia. Altzairuzkoa da eta heldulekua zurezkoa.

MATXETEA




Sasiak mozteko erabilia.

PALARRA




Altzairuzkoa da eta ximaurra biltzeko erabiltzen da.

PALA



Lan askotako erabiltzen da eta mota askotakoak daude.

LANDARE PALA




Landareak ateratzeko erabiltzen dan pala mota bat.

SASKIA




Zumitzezkoak dira. Gauzak alde batetik bestera eramateko erabiltzen dira. Mota askotakoak dira: lur-saskia, lepasaskia, buruzestoa, e.a.

GURDIA




Egurrezkoa da eta bi gurpil ditu. Gurpilen gainean burnizko uztai bat darama. Behiek eta hidiak aurretik eramaten dute. Baserriko gauz asko eramateko erabilia: belarra, ximaurrea, patata, egurra, e.a.

LERA




Egurrezkoa da. Gurpilik gabekoa eta azpian burnizko llanta batzuek ditu, aldapetan ibili ahal izateko. Belarra eramateko erabiltzen zuen bereiziki.

ALPERRA




Zilindro itxura duen tresna bat da. Kalizazkoa. Laiatu eta goldatu ondoren pasatzen ohi da, lurrak dituen kozkorak txikiarazteko.

URKA MOTZA




Gurdi motz bat da. Basotik zuhaitz handiak edo tronkuak ekartzeko erabiltzen zuten. Idiek tiratzen zuten aurretik, eta biratzeko oso erreza zen.

GALERA




Lau gurpil duen gurdi handi bat da. Egurra eta ikatza eramateko batez ere. Bide onetan eta zabaletan erabiltzen zuten.

KARROTILOA



Lehenengoak egurrezkoak izan ziren, gerogokoak burnizkoak. Gurpil bat edo bi eduki dezake. Ximaurra, egurra, patata, lurra, harria eta horrelakoak alde batetik bestera eramateko erabiltzen zen.


UZTARRIA



Idiak elkar lotzeko erabiltzen da, Zurezkoa da. Adarren gainean jartzen ohi da, eta adornuak eramaten ditu.

KOPETAKOA

Narruzkoa da. Abereei jartzen zaie uztarriak kopetan mindu ez ditzaten.



ZINTZARRI


Ardiak lepoan eramaten dute. Baita ere, joare deitzen zaio, eta handia bada dunba. Zintzarriren mingaina (mihia) adarkizkoa izaten da eta larruzko lokarri mehe batetaz lotzen dute.

KOILARONA

Aberei lepoan jartzen zaie, gero atzetik tresnak jartzeko.



KAKOAK




Zurezkoak dira eta mando
gainean jartzen dira kargak
eramateko.

ARBALDEA



Zaku eta lastoz egina dago.
Astoari gainean jartzeko
izaten da.



KRABESTUAK


Larruzkoak dira eta zal-
diei buruan jartzeko
erabiltzen dira.

KATEA




Abereak lotzeko
erabiltzen dira.

ASPI LA



Zurezko ontzi bat da eta behiei
pentsua emateko erabiltzen da.


SAGAR TXIKITZAILEA



Egur eta burdi-
nezkoa. Sagarrak
txikitzeko era-
biltzen zen.


TOLAREA

Ardoa, sagardoa eta beste zenbait edari egiteko leku edo tresna bat da. Burdina eta egurrezkoa da. Bertan jartzen dira nola sagarrak hala mahats aleak ondo zapalduak eta zukutuak izan daitezzen. Antzinan, hankaz zapaltzen zuten mahatsa; gaur egun elektrika indarrez mugituriko tolaretan zukutzen da.




SUKALDEKO TRESNAK

AUSPOA



Haizea emanaz sua indartzeko tresna bat da. Egurrezkoa eta fuellea narruzkoa.

TENAZAK




Subajuan egurrak mugitzeko erabiltzen zen.

ELATZA



Subajuan kazuelak zintzilikatzeko katea. Burdinezkoa da.



SU-BURDINA


NESKAMEA



Subajuan sua hormatik mugatuko duen burdine.

Burdinezkoa da, eta subajuan kazuelari eusteko erabilia.

ORROMAHAIA



Ogia egin aurretik behar den orhea egiteko.

ANTOXINA



Aspaldikoak egurrezkoak ziren. Gerozkoak, portzelanazkoak. Ura eta sagardoa edateko erabilia.

BURRUNTZALIA




Portzelanazko eta aluminiozkoak. Janariak eltzetik ateratzeko erabilia.



PLANTXA

Erropak plantxatzeko. Garai batean ikatza sartzen ziztzaion eta plantxa berotzen zenean plantxatu.

BRASEROA ETA PALA



Biak burdinezkoak. Braseroa ankak berotzel erabiltzen zen eta pala brasa kentzeko.

ALMAIZEA




Egurrezkoak ziren. Batzuria eta zenbait espezie txikitzeko zen.

KAFERROTA



Kafea ehotzeko tresna.

OHERAKO BEROGARRIA



Kobrezkoa da eta oheak berotzeko erabiltzen zen. Kirten luze bat zuen oheko baztar guztietara irixteko.


ELTZEKONDOA



Burnizkoa eta hiru hankakoa.


Eltzea sutan jartzeko.

PARRILA




Burdinezkoa da. Urdaia edo beste haragiren bat erretzeko erabilia da.

PARETAKO MAHAIA



MAMI ONTZIA



Artzaiek jateko erabiltzen zuten.
Egurrezko platera sakon bat da.

KATILUA




Aspaldi batean egurrezkoak ziren,
gerogo lurrezkoak. Esnea hartzeko da.

APAXKOA



PERTZAK



Jana prestatzeko ontziak dira.

ARGIZAIOLA




Argizariak edukitzeko zur landua.

ERRADEA



Zurezkoa da gehienbat.
Ura ekartzeko erabiltzen da.

BARRINOIA




Zinkezkoa da. Erropak alde batetik bestera eramateko.

TINEA




ARRAXKA




LIXUGARRIA

Hiruak erropak garbitzeko tresnak dira. Arraxka, zurezkoa da. Tinea, burdinezkoa. Eta lixugarria, harritzkoa.


GERRENA



TALO BURNIAK




TALO PALEA



Taloak erretzeko burdina.


Taloak zabaltzeko
zurezko tresna.

MALARRA




Zurezkoa. Taloak berdintzeko da,

DANBOLINA




Burdinezkoa da. Gaztainak
erretzeko erabiltzen da.

ELATZAK



ERRATZA




Orain guk "eskoba" deitzen diogu. Txillarrezko edo lasto hantzeko belarraz egina izaten zen. Sukaldek, gelak errazteko erabiltzen zen.

ARRASPEA




Erropak garbitzeko tresna. Zurezkoa da.

BURUKOTEA







Zapi bat da. Buruan jartzen zen eta honen gainean burusestoa edo barrinoia jartzen zuten emakumeak.

KUTXAK




Euskal altzairuen adierazgarri nagusia da. Haitzekoa edo gaztainondoakoa izan leike. Eramaten dituen marrazkiak esanai desberdinezko eta berezizkoak dira. Adibidez: eguzkiarenak, aberenak, landarenak, gizonenak. Baita ere boro-bil inudi batzuek edukitzen dituzte, "rosetones" direlakoak. Erropak, artoa, garia, irina eta beste zenbait gauza gordetzeko erabiltzen zuten.





KANDELARIOK




Kobre edo bronzeskoak izaten dira.
Argia egiteko erabili izaten zituzten.

KRISAILUA




Hojalatazkoa da eta argia
egiteko erabiltzen zen.

MARATILA




Zurezko tresna hau aria
biltzeko erabiltzen da.

TXARRANTXA



Zurezkoa da eta linorekin
aria egiteko erabiltzen zen.

ARDATZA



Egurrezkoa da eta bertan
aria biltzen da.


KARDAK



Egurra eta alanbrezkoak,
ardi ilea orrazteko.

ARTZANTZAKO TRESNAK

ABATZA




Ontzi honek txuntxur motz baten tankera du. Eskuleku bat izaten du alde bakoitzean. Artzainak behar beharrezkoa zuten zuten gazta egiteko.

OPORRA



Hau ere zurezko tresna bat da, gehienetan urkizkoa. Bere neurriak litrokoak, erdikoak edo laurdenekoak dira. Talo esnearerentzat eta mamiar erentzat erabiltzen da.

KAIKU



Artzainak erabiltzen dute. Zurezkoa, gehienetan urkizkoa. Ahoaldea zorua baino zabalagoa da eta eskulekua darama. Esnea edukitzeko erabiltzen da bereiziki.

MALATSA



Esnea nahasteko edo, hobe-kiago esan, esnea jotzeko erabiltzen duten tresna bat da.

SUILA



Artzainak erabiltzen zuten zurezko tresna bat da. Esnea edukitzeko erabiltzen zuten.

ZUMITZA




Zurezko ontzi bat da. Bago, gaztaina edo lizarkiz egina. Gazta egiterakoan, mamia behar bezala mamiatzeko zerbitzen du tresna honek. Gaztari bere itsura emateko molde da.

TXURKEA



Egur luze zulodun bat da. Honen gainean ipintzen da zumitza gazta egiterakoan.

ZIRIA



Esnea nahasteko edo jotzeko erabiltzen duten tresna bat da.



EPAKIA

Zurezkoa, labanaren gisako tresna bat da. Mami gogortua ebakitzeko erabiltzen dute artzainak.

BESTE ZEINBAIT TRESNA



AIZKORA



PIKATXOIA




ZERROTEA




MAZOA




PORRA



BARRENOA



TARATULOA



ERROMARRA

TXIRRIKA




Sortak garmaiatzeko
erabiltzen da.

KALERA




Zurezkoa da eta kargak
jasotzeko erabiltzen da.

ANTZAILA




Zurezkoa da. Animalien
sokak lotzeko beharrezkoa.

GALBAIA




PINU ZURITZAILEA




Piñuak zuritzeko
erabiltzen da.

Egurrezko tresna. Garia
pasatzeko erabilia zen.
Orain beste irin edo are
pasatzeko erabiltzen da.

DEZTEREA



LARIA



Tresnak zorrozteko erabiltzen dira hauek, eta harri latza eta
burdina ditu. Laria gabienetan haizkora zorrozteko erabiltzen da.

JAIOTZAREN INGURUKO OHITURA ETA USADIOAK

JAIOTZA

Garai batetan, duela 50 urte arte gutxi gorabehera, jaiotza ez zen gaur bezala eritegi edo hospitaletan gertatzen, norbera bizi zen etxean baizik.

Etxe batean, familia batean, haurra jaiotzen zenean ezbeharrik ez bazen behintzat, ez zen sendagile edo medikuaren beharrik ere izaten, emakumeari haurra izaten edo haurrari jaiotzen laguntzeko. Auzoan edo herrian emakumeren bat izan ohi zen lan horietan esperientzia zuena, eta bera izaten zen laguntzaile edo "partera" (izen hau erabiltzen zen haurraldian laguntzen zuen emakumea izendatzeko). Konplikazio edo ezbeharrik sortzen bazen, ahal izanez gero sendagileari deitzen zitzaion. Gehienetan beranduegi etorri ohi zen sendagilea eta horregatik hainbat haur hiltzen zen jaiotzean.

BATAIOA

Haurra jaio eta ahalik eta azkarren bataiatzera elizara eramane ohi zen. Ahal bazen, jaiotako egun berean edo biharamunean, eta inolaz ere ez, zortzi egun pasa ondoren. Hori oso gaizki ikusia zegoen eta familiaren zabarkeriatzat jotzen zen.

Haurra bataiatzera eramaten zenean, burua lehortzeko oihala eta kandela hartzen ziren eta bi librako ogia eramaten zitzaion apaizari. Bestalde, haurraren ama ez zen inoiz elizara joaten, gehienetan oraindik ohean zegoelako, eta aita joaten baldin bazen ere, ez zuen egiteko berezirik; ikusle edo laguntzaile bat gebiago bezala egoten zen.

AITA-AMA PONTEKOAK

Bataio egunean aita-ama pontekoak izan ohi ziren protagonista nagusiak. Haurra Elizara beste norbaitek eramaten baldin bazuen ere, Elizako sarreran amapontekoaren besoetan utzi behar zuen. Aita-ama pontekoek haurrari zein izen jarri behar zitzaion aukeratzeko eskubidea zuten. Gurasoek ez zuten, izena aukeratze horretan, hitzik ere. Noiz edo noiz gertatu ohi zen, familiartekoei bataiotik etxera itzuli arte, amak ez jakitea haurrari zein izen jarri zioten.

Ohitura handia zen eguneko santuaren izena edo eta aita-ama pontekoen izena jartzekoa. Mutila bazen aitapontekoarena. Neska bazen amapontekoarena.

Gehienetan aita-ama pontekoen aukera, haurraren gurasoek egin ohi zuten. Baina usadioak eta ohiturak kontutan izan behar zituzten. Seme-alaba zaharrenak aiton-amonen besoetakoak izan behar zuten. Gero osaba-izebak, etab.

"APURRILOAK"

Haurra bataiatu eta Elizatik irtetean aita-ama pontekoek "diru txanponak" "apurriiloak" bota ohi zituzten herriko neska-mutil koxkorren poz eta gozamenerako. Hauek sailean egoten ziren, bataiozaleak Elizatik noiz irtengo zai. Gaur egun ere ohitura honek jarraitzen du zenbait herri txikitik. Herri handietan galdu da. Dirurik edo goxorik botatzen ez bazuten herriko neska-mutilek oihu eta burla egiten zieten aita-ama pontekoei eta haur jaio berriari, abesti edo oihu desberdinak eginez. Horietako bat eta gaztelaniaz esan ohi zutena, hauxe da:

Bautizo cagado
bautizo meado
si cojo al crío
lo tiro al tejado.

BATAIO-BAZKARIA

Ondoren Bataio-Bazkaria ospatu ohi zen. Aita-ama pontekoen esku egon ohi zen bazkaldari nortzuk izan behar zuten erabakietzea: Etxekoak, tarterikoak, auzokoak, apaiz, sakristau, organista, etab. Bazkari hori haur jaio-berriaren etxean edo herriko ostatu edo taberna batetan izaten zen.

HAUR JAIO-BERRIARI ETA AMARI BISITA

Bataio eguna pasa ondoren auzoko eta herriko zenbait familia-tako emakumek, bisita egin ohi zieten haur jaio-berriari eta bere amari. Ikustaldi horretan zerbait eramaten zioten haurra izan berriari. Hala nola: oilo bat (oiloren saldarekin indarra berritu zedin), txokolate libra bat edo bi, gaileta pakete edo kaxaren bat, ardo goxoa edo beste horrelako zerbait. Baita ere eramaten zitzaion zerbait dirutan, bost edo hamar duroko bat, gastuak arintzeko.

ELIZAN SARTZEA

Haur jaio berriaren ama pixka bat indartu eta ongi jartzen zenean, Elizan sartzeari ospatu ohi zen. Familiako edo auzoko beste emakume batek amari lagunduz haurra Elizaraino eramaten zuen. Han, sarreran, bere amaren besoetan uzten zuen, eta apaizak errezo batzu egin ondoren, estola-muturra amaren eskuetan jarri eta Eliz-etxean sartzen ziren.

EZKONTZA INGURUKO OHITURA ETA USADIOAK

EZKONTZA-AURREKO USADIOAK

Joan den gizaldian, eta baita gizaldi honetako lehen urtetan ere, gerra bitartean behintzat, neska-mutilen ezkontza guraso edo aiton-amonek prestatzeko ohitura handia zegoen.

Batez ere, zera gertatzen zen: mutilak edo neskak zituen proiektuak guraso edo aiton-amonen gogokoak ez baziren, hauek burutik kentzen ahalegintzen ziren.

Gehienetan, gazteek burua makurtu eta gurasoen edo aiton-amonen esana eginez amaitzen zuten.

Neska edo mutil baten gurasoak edo aiton-amonak bestearen gurasoei beren asmoak azaltzera joaten zirenean, erdiko edo tarteko semearen edo alabaren bila joaten baziren, zenbait familiak ez zuen hori onartzen. "Ogia muturretik hasten da" esanaz erantzun ohi zuten. Seme-alaben errenkarari jarraitu behar zitzaiola, zaharrenetik hasi behar zela alegia, eta senide gazteagoak zaharrena ezkondu arte itxaron behar zuela. Beraz, garai haietan neska eta mutilek ezin ziren nahi zutenarekin ezkondu.

EZKONTIDEAREN AURKEZPENA

Behin gurasoak seme edo alabaren ezkontidea ontzat eman ondoren, eta aurrera jarrai zitezkeela adierazteko, ezkontideen aurkezpena egin ohi zen. Lehenik, gehienetan, mutila neskaren etxera joaten zen gurasoen onarmena jasotzeko. Gurasoen gogokoa ez bazen, aurrera jarraitzeko baimena ukatu eta burutik kentzen ahalegintzen ziren.

Eliz-etxe barruan, amak, beso batean haurra eta kandela piztu bat beste eskuan harturik, aulki batean belaunikaturik haurraren eskeintza egiten zuen. Etxetik eramandako kandela Elizarako gelditzen zen.

Garai batetan ohitura hau oso zorrotz bete beharrekoa omen zen. Izan ere haurra izan eta Elizan sartu aurretik ezin zen etxetik inora ere irten. Etxeko teilapetik baratzara, sorora edo auzoko beste etxe batetara irten beharrean gertatzen baldin bazen, etxeko atarian egoten zen teila bat buru gainean jarrita joan behar zuen. Bestela haurraren gain madarikazioren bat eror zitezkeen ustea zegoen. Gerora ohitura hori asko aldatu zen arren, haurra izandako ama asko, Elizan sartzea egin aurretik, ez zen etxetik kanpo ibiltzen.

MARTOPILAK

Haur jaio berria eta bere ama bisitatzera joan zirenei, haurraren amak, erabat bizkortzen zenean, martopilak izeneko merienda edo antzeko zerbaite eskaintzen zien. Gehienetan txokolatea katilean eta gero "bolarua" izeneko gozokiarekin gozatutako ura edateko. Gertakizun honekin bukatutzat ematen ziren Bataioaren inguruan egin ohi ziren ospakizunak.

Horrelakorik gertatzen zenean, hau da, gurasoen ahaleginez neskak mutila uztea, edo alderantziz, tabernetan bertsoak aterara ohi zizkieten burla edo farre eginez.

Gauza bera gertatzen zen, aurreko andregaia edo mutila utzi, eta beste batekin hasten zenean. Tabernetan bertsoak ateratzen zizkietela alegia.

EZKONGAIEN DESPEDIDA EDO ERREFRESKOA

Ezkontzako eguna hurbiltzen zenean, ezkongaiek, bakoitzak bere aldetik, despedida edo errefreskoa eskaini ohi zieten bere lagunei.

Mutilaren aldetik egin ohi zen ospakizunak, despedida zuen izena. Normalki afari batetan elkartzen ziren... Ohitura honek gaur egun ere jarraitzen du.

Neskaren aldetik egin ohi zen errefreskoa izeneko ospakizuna zera izan ohi zen: Auzoko edo herriko laguntaldea bildu, eta askari edo merienda bat eskaintzea.

EZKONTZAREN OSPAKIZUNA

Ezkontza, gehienetan goizean goiz ospatu ohi zen (goizeko 6etan, 7tan edo beranduena 8etan). Inoiz ez zen beranduago egiten. Ezkongaiak, padrino-madrina eta beste inor gutxi izaten zen Ezkontza-meza horretan. Meza isila eta motza. Ezkontza ondoren, bizi behar zuten etxera joan eta gosaria, gehienetan bazkari baten antzekoa, egin ohi zen.

Gosaldu ondoren gehieneak etxeko edo soroko lanetara joaten ziren, urte sasoiko lanen arabera. Eta ez bakarrik familiakoak, bai-

ta ere ezkonberriak. Gutxienak ziren eztai-bidaia egiten zutenak. Ohitura hori, eztai-bidaietan joatekoa alegia, duela 40 urtez geroztik hedatu da.

EZKONTZA-ARREOA

Ezkontza-egunean, emakume ezkonberriak, baserritarra baldin bazen, gurdian hartu eta bizitzen jarri behar zuen baserriko mandioko atean aurkeztu behar zuen bere "arreo". Kalekoa baldin bazen, etxeko jangelan aurkeztu ohi zituen. Arreo horretan honako hauek sartzen ziren:

Ezkonberrientzat: Koltxoi, maindire, azpiko erropa, gainerako jantzi, soineko, etab.

Buruko mantalinatik hasi (elizara joateko) eta oinetakoetaraino.

Familiako guztientzat: Aiton-amona, guraso, osaba-izeba, eta senide bakoitzarentzat:

Erropa (traje edo soinekoa),

Oinetakoak (elizara joateko bakarrik erabiltzen zirenak).

Erropa horiek "Intzentsu egunetan", elizan intzentsua erabiltzen zen ingande eta jaietan bakarrik jazten ziren.

HERIOTZAREN INGURUKO OHITURA ETA USADIOAK

ELIZAKOAK

Familia batean, norbait gaizki jartzen zenean, familiakoek gaixoarentzat Elizakoak eskatzen zituzten. Orduan apaiza, elizatik gaixoaren etxera, bere aurrean akolitoa edo sakristaua, mezatan erabiltzen zen zintzarria tarteka joaz, bidez bide joaten zen. Pasadizoan, parean tokatzen ziren pertsona guztiek belaunikatu egin behar zuten, zeuden tokian zeudela, baita harri kaxkar edo lokatza artean egokitzen baldin baziren ere. Ohitura hori jende guztiak errespetatzen zuen. Oso gaizki ikusia zegoen norbait belaunikatu gabe gelditzea.

Apaizarekin batera, edo zerbait lehenago, auzoko jendea gaixo zegoenaren etxera bildu ohi zen, eta kandela piztuarekin Elizakoak eman bitartean han egoten zen, errezoetan apaizari erantzunez. Elizakoak izenarekin, Gaixoen igurtzia eta Jauna ematea egin ohi zen.

Hori bukatzean, auzokoak beren etxeetara itzuli ohi ziren. Bestalde, apaizari eta bere laguntzaileari gosaria eskaintzen zitzaien. (Gehienetan goizean eramaten bait ziren Elizakoak; orduko legeen arabera, gaixoak, sano zegoen beste edozeinek bezala, baraurik, ezer jan gabe alegia, gaueko hamabiak geroztik egon behar bait zuen).

AGONIAKO KANPAIAK

Gaixo zegoena oso gaizki jartzen zenean, hiltzeko zorian alegia, agoniako kanpaiak jo ohi ziren, herritarrei adierazteko.

HERIOTZA ETA HIL-KANPAIAK

Azkenik, heriotza gertatzen zenean, berriro ere kanpaiak jo ohi ziren herritarrei gaixo zegoena hil zela adierazteko.

Handik aurrera, hildakoaren etxean mugimendu handia sortzen zen. Auzoko eta herriko zenbait pertsona hildakoaren etxera agertzen ziren etxekoak agurtzera eta nahigabea lagundu nahian, hildakoari bulda jartzera.

Izan ere, hildakoaren etxean, aurrez apaizari eskatuta, Bula (bulda) izeneko paper batzuk egon ohi ziren hildakoaren alde indulgentziak irabazteko eta barkamen osoa lortzeko, beste mundurako lagungarri omen zirela eta. Etxera hurbiltzen zen bakoitzak hildakoaren gorpuaren gainean bulda bat jartzen zuen, aurrez diru bat ordaindu ondoren.

Ilunabarrean, hildakoaren etxean errosarioa ere errezatzen zen. Horretarako, toki batzutan herriko apaiza hildakoaren etxera joaten zen, eta auzoko eta herriko jende saila biltzen zen. Apaizik ez bazen, beste norbaitek zuzentzen zuen errosarioa.

GAUBEILA

Errosarioa amaitu ondoren, GAUBEILA edo hildakoaren gorputzari guardia egitea hasten zen.

Auzoko jendea biltzen zen hildakoaren etxean. Batzuk gau-leheneko, besteak gau-erdiko eta azkenik goizaldeko orduetan txanda eginaz. Noiz edo noiz tabernetan berandu arte, tabernak itxi arte alegia, ibili ondoren, hildakoaren etxera agertu ohi zen zenbait herriko jende. Gaubeila egitera etortzen zirenei kafea eta pattarra eskaini ohi zitzaizkien eta kontu kontari egon ohi ziren, hildakoaren historia pertsonalak, familiako historiak, herriko historiak, eta baita ere broma edo txisteak kontatuz. Familiakoei pena arindu nahian edo pixka bat distraitu eta ahaztu arazteko asmotan nonbait.

Gaubeila honetan berritu ohi ziren historia zaharrak, ipuinak, etab. ere.

HILETAK EDO ENTIERROA

Ondorengo egunean, eta beti goizetik, orduan ez bait zen arratsaldeko mezarik inoiz izaten, hiletak edo entierroko elizkizuna izaten zen.

Gaur ulertzea zaila egiten bazaigu ere, garai hartan elizkizunak familiaren kategoria edo ondasunen kopuruaren arabera maila ezberdinetakoak izan ohi ziren. Lau klase edo mailatako elizkizunak egin ohi ziren:

- Primerisimako elizkizuna: familia oso aberatsa baldin bazen.
- Primerako elizkizuna: familia hain aberatsa ez bazen.
- Segundako elizkizuna: familia erdi mailakoa bazen.
- Tertzera elizkizuna: familia langile edo behartsua bazen.

Kategoriaren arabera aldatu ohi ziren elizkizuneko elementuak. Zenbat eta kategoria handiagoa, orduan eta apaiz gehiago, akolito gehiago, kandela gehiago, aldareetan argi eta apaindura gehiago. Koruan ere kategoriaren arabera abeslari gehiago edo guttiago izan ohi ziren. Primerisima eta Primerakoan abeslarien kopurua eta abestiak segundako edo tertzerako entierroetan ezbezalakoak ziren. Lehenbizikoetan ahotsetara abestuz, eta azkenekoetan soil soil abeslari bat edo besterekin. Gauzarik bitxiena "Atienpoko Mezak" ziren. Meza hauek, hileta edo entierroko elizkizunek irauten zuten bitartean eman ohi ziren. Aldare nagusian hiletak egiten ari ziren bitartean, aldameneko aldareetan meza isilak ematen ziren. Bat, bi, hiru txanda eta gehiago, kategoriaren arabera. Inguruko herrietako apaizak eta konbentuetatik fraileak ekarri ohi ziren. Gutxienez 3 edo 4, eta familia aberatsa bazen 8 edo 10, eta noiz edo noiz 20raino ere bai.

Familien artean, nor gehiago izan nahia bezalako jokaera zabaldu zen. Inork ez bait zuen besteak baino gutxiago izan nahi.

Hiletek irauten zuten bitartean, "Atienpoko Meza" eman ondoren, apaizek errespontsoak errezatzen zituzten hildakoaren familiak zeukan "sepultura" deitzen zitzaion lekuan. Han argizaioletan kandela eta argizari piztuak egon ohi ziren, eta apaizak errespontsoa esan ahala familiakoek dirua botatzen zuten sepulturako zapira edo apaizaren "bonete" edo sonbrailura. Baita ere, batez ere gerra aurretik, apaizarentzat opari bezala bi libako edo lau libako ogiak ekartzen zituzten, kategoriaren arabera.

Hiletak amaitutakoan doluminak ematea eliz-atarian edo zimiterioan egin ohi zen. Hildakoen familiakoek errenkaran jarri ohi ziren eta jendea banaka pasatzen zen bakoitzari eskua eman eta doluminak emanaz.

Ondoren hildakoaren gorpua bizkarrean hartu eta hobiratzera eramane ohi zuten.

HILETA-BAZKARIA

Gorputza hobiratu edo enterratu ondoren, hileta edo entierro bazkaria ospatu ohi zen. Bazkari hau etxean edo herriko ostatu edo tabernan ospatu ohi zen, eta familiaren kategoriaren arabera egin ere. Bertan izaten ziren kanpotik etorritako familiarteak eta baita herrian bizi ziren zenbait familiarrak ere. Bestalde herriko apaiz, sakristau, organista, etab... Kanpotik etortzen ziren apaizei, urrutitik etorritakoak zirenean, bazkaria familiakoei baino lehenago eman ohi zieten.

Zenbait kasutan bazkaldarien kopurua 80 edo 100 pertsona eta gehiagoraino ere iritsi ohi zen. Eztai-bazkarietan bezalatsu jendea biltzen zen, eta familiakoak bazkaria amaitu orduko, mahaik erretiratzen baziren ere, beste zenbait gonbidatutakok mahaian jarraitzen ziren arratsalde erdira arte. Zenbait alditan hileta-bazkariak umore onean eta bertsoak abestuz ere amaitu ohi ziren. Nolanahi ere gastu handiak sortzen ziren, hileta-elizkizun, bazkari, etab. Familia batzutan, hileta bat baino gehiago segidan gertatzen baziren, gastu handiak egin beharrean gertatzen zirenez, lur jota gelditzen ziren. Baserria ona izan arren, hondaturik gelditutako kasuak ere badira.

ONDRAK ETA SEGIZIOA

Hiletak edo entierroa egin ondoren, ondorengo bederatzi egunetan meza egin ohi zen hildakoaren alde (Bederatzihurrena). Eta bederatzihurrenaren amaieran "Ondrak" izenarekin ezagutzen zen elizkizuna egiten zen. Bi meza kantatuak izaten ziren. Meza hau-ei beste leku batzutan "kantarilak" izena eman ohi zitzaien. Abestuak izaten zirelako, alegia.

Denborarekin, ohitura edo usadio hau aldatuz joan zen eta bederatzihurrena egiten bazen ere, "Ondrak" izeneko elizkizunik ez zen egiten, eta haren ordez "SEGIZIOKO MEZA" izenekoa, gaur egun egiten den bezala ospatu ohi zen. Kontutan hartzen badugu garai batetan, gaur ez bezala, elizkizun horiek guztiak familiak ordaindu egin behar izaten zituela, jabetuko gara, gastu handiak sortzen zitzaizkiola familia bati norbait hiltzen zen bakoitzean. Gaur egun gastuak sortzen dira, baina batez ere eritegi edo ospitalean hil eta gorputza etxera ekartzen denean.

LUTOA

Hildakoaren familiakoek, lehen mailako senide artekoek gutxienez, urte bete osoan, janzki beltzez jantzita ibili behar zuten. Gizonezkoek besoko edo brazalete beltza erabili ohi zuten txamarraren besoan. Emakumezkoak berriz, guztiz beltzez jantzita ibili ohi ziren; ez bakarrik adinekoak, baita gazteak eta zenbait kasutan haurrak ere.

URTEAN ZEHAR

Igandero, urte osoan zehar, hildakoari errespontsoak ateratzen zitzaizkion eta familiakoek bi edo lau librako ogia eraman behar zioten apaizari, kategorien arabera.

Urte Betetzeko Meza egiten zenean, hildakoaren aldeko ohitura eta usadioak amaitzen ziren.

GAZTAIN-LANAK

GAZTAIN-BILTZEA

Gaztainak ere udazkeneko fruituak dira. Heltzen direnean, Urrialdera, gaztain zuhaitzetatik erortzen dira hego-haizearen eraginez, edo baita HAGA izeneko makila luze batez adarrak astindu eta jo ondoren.

Jakina denez, gaztain-aleak, bi edo hirunaka, MORKOTXA deituriko eta arantzaz beterik egoten den azal batetan estalirik egoten dira.

Batzutan, zuhaitzean daudela, morkotxa zabaldu eta aleak lurrera erortzen dira. Bestetan, morkotxa lurrera erori eta lurra jotzen duenean, lehertzen da eta aletu egiten da.

Azkenik, beste batzutan, lurrera erori arren, morkotxa osorik, zabaldu gabe, gelditzen da, batez ere hagarekin edo adarrak astinduz botatzen denean.

Orduan, gaztain-morkotxari, arantzak dituelako eskua erabili ezin denez gero, behatzak zulatzen bait ditu, MATXARDA izeneko pintza batzurekin heltzen zaio. Lehen matxardak bi pintza zituen; horien artean gaztain morkotxa hartu eta aleak kentzen zitzaizkion. Beste batzutan morkotxa oinetako-pean, lurraren kontra erabiliz askatzen dira aleak.

Garai batetan, gaztainak biltzeari dagokion ohitura edo usadio bat ba omen zen; zorrotz bete beharrekoa gainera eta zenbait lege baino indar handiagoz esijitua eta errespetatua.

Usadio hori zera zen: Gaztainadiaren edo gaztain-zuhaitzaren jabeak, gaztainak beretzako bakarrik nahi baldin bazituen, Santu Guztien eguna baino lehen bildu behar zituen. Behin egun hori igaro ondoren, gaztaina biltzea libre zen, eta edonork zuen eskubide gaztaina biltzen ibiltzeko. Ezin zion beraz gaztainadi baten

jabeak bere sailean gaztainak hartzen ari zenari ezer esan.

Usadio edo ohitura honek bi oinarri omen zituen. Alde batetik, gaztaina, familia askotan, neguko oinarritzko janarietako bat zen, eta janari hori mendian sobrante egon eta etxean faltatzen ez zen, arrazoin handiz, ontzat ematen. Beste aldetik, eta ohitura hau lurraren jabetasun pribatua sortu baino lehenagokoa dela esan nahiko luke, artzainak batez ere abereak larrera bota eta gaztaina jateko eskubidea gordetzen zutela adierazten du. "Lurrak larrea eta basoak alea zor du" esaera zaharraren arabera. Nekazariak uzta bildu ondoren, artzainek lurrian larrea eta basoan alea biltzeko eta jateko eskubidea aintzinatik gordetzen zutela, alegia.

GAZTAINAK EGOSTEA NAHIZ ERRETZEA

Basoan bildu eta etxera ekarritako gaztainak, egosi eta berehala jateko ez baziren, gatza eman eta garbarán edo gela batean gorde ohi ziren erretzeko unea iritxi arte.

Bazen beste era bat ere gaztainak gordetzeko. Zenbait baserrian, basoan aletzeko betarik ez zegoenez gero, gaztain morkotxak aletu gabe jaso eta morkotxean eduki ohi zituzten garbaran jasota. Gero behar zutenean aletu, eta egosi edo erreta jateko.

Egosi, gaztainak era askotara egosi ohi ziren. Gaineke azal eta guzti etxe batzutan, koskara txiki bat eginda bestetan, eta gaineke azala erabat kenduta beste batzutan.

Labean edo beste nonbait erretzen zirenean, labanarekin puska txiki bat kendu eta erre ohi ziren. Danbolinean erretzen zirenean, ordea, gaztainak osorik sartu eta su gaineke danbolinari bueltak emanez, gaztainak azala lehertzean tiroka hasi eta ongi erre bitartean ez ziren ateratzen.

Gero, ohitura zabalduena, gaztain erreak jan eta sagardoa edatekoa zen. Toki askotan Santu Guztien egunez, gazte-taldeek gaztain-janak egin ohi dituzte, baita zenbait familiatan ere.

Garai batean, ordea, gaztain-janaldi bereziak egiten baziren ere, gehiago erabiltzen zen eguneroko janari bezala.

Izan ere, garai hartako bazkari-afariak, oraindik bizi diren aiton-amonek ezagutuak, ez ziren gaurkoak bezalakoak izaten.

Eguerdian, toki gehienetan eltzekoa eta ondoren sagar erreak. Toki gutxi batzutan lapikoak eta zartaginak erabiltzen ziren haragia, arraina, arraultzeak edo bestelako jakirik prestatzeko.

Afariak, berriz, etxe gehienetan honelakoak izan ohi ziren: Lehenik gaztain egosiak edo erreak, eta gero taloa eta esnea. Etxe batzutan patata egosiak ere jan ohi zituzten gaztainen aurretik, baina gutxienetan.

Ez zegoen, beraz, gaur egungo kapritxo eta berriketentzat toki gehiegirik.

GARI LANAK

GARIA EREITEA

Udazkenean, Abendua baino lehen, horretarako prestaturiko lurretan garia ereiten zen. Garia ereiteko erabiltzen ziren lurrak, aurreko urtean artoa eta babarruna ereiteko ibili zirenak izan ohi ziren, lur-sail berean txandaturuz erein ohi bait zen urte batean artoa eta babarruna eta bestean garia eta arbia. Batzutan erein ohi zen, -eta orain ere erein ohi da,- arbia arto tartean. Artoa bildu ondoren, abereentzako neguan arbia izateko.

Neguko euriak eta elurrak ereindako gari aleak ernarazten ditu. Gero udaberrian landare egin eta hasieran belar baten itxura hartzen badu ere, belarra baino gorago eta altuago igotzen da, eta kainabera gisako zuztar baten itxura hartzen du. Zuztar hori zenbat eta bikainagoa izan, orduan eta lasto ugariago lortu ohi zen. Zuztarraren muturrean galburua (gari burua) agertzen da, zuztarrari gogor itsatsia. Haizerik gogorrenak askatu ezinezko eran itsatsia.

GARIA EBAKI ETA JASOTZEA

Garia heldutakoan, uztailaren erdi aldetik aurrera garia ebakitzea egin ohi zen. Gehienetan, abuztuaren hasiera baino lehen garia bildurik egon ohi zen.

Garia ebakitzeko, garaia heltzen zenean, inguruko baserrietako jendea biltzen zen, garia ebaki behar zuten etxekoei laguntzeko. Auzo bereko familiak, txandaka, baserri batekoak amaitu ondoren bestekoak egitera bildu ohi ziren.

Garia gehienetan igitaiarekin ebaki ohi zen. Zenbait lekutan, igitaia ez, baizik sega berezi bat erabiltzen zuten. Belarra ebakitzekoaren antzeko sega izan arren, beste egurrezko tramankulu bat

eraman ohi zuen, zutik zegoen gariari behetik ebaki baino lehen eror ez zedin eusteko.

Ebaki ondoren garia "bala" izeneko sorta batzutan bildu ohi zen. Bi eskuekin har zitekeen hainbat gari biltzen zuena. Gari sorta "bala" hori lotzeko gari lastoa erabiltzen zen.

Gero, gari-bala horiek elkarren kontra zutik jarri eta meta bat egin ohi zen. Meta txikiak, egun batetik bestera garia jasotzeko asmoa baldin bazen. Meta handiagoak egiten ziren, gari-balek soroan zenbait egunez egon behar bazuten.

Lan horiek egiterakoan ur-ardoa azukrearekin gozaturik eskaini ohi zitzaien garia ebakitzen, biltzen eta jasotzen ari zirenei.

GARIA JOTZEA

Gari-balak sorotik etxera eraman ohi ziren eta han, etxe aurrean edo etxe barruan edo ganbarako sarreran, garia jotzeko harri-mahainak edo harri-losak jartzen ziren. Erropa garbitu eta jotzeko edo baita garai batean lixuba jotzeko erabili ohi ziren harri edo losen antzekoak ziren.

Garai hartan ez zen oraindik garia jotzeko makinarik, eta bi eskuen artean gari-bala zuztarretik hartu eta buruko galburuak alea bota bitartean harri-losaren kontra jo ohi zen.

Geroago, garia jotzeko eta alea alde batera eta lasto txikitua bestera botatzen zuten makinak sortu ziren.

Gaur egun, berriz, garia ereiten den lurraldeetan, garia jotzeko ez ezik, garia ebaki ala gari alea eta lastoa bereizten dituen eta garia zakutan eta lastoa fardotan bilduta uzten dituzten makina ikusgarriak erabiltzen dituzte (segamakina, uztamakina, garijomakina, etab.)

OGIA EGITEA ETA ERRETZEA

Ganbara edo gela batean bildu ohi zen garia; gero zakutan sartu, eta errotara eraman ohi zen ehotzeko. Garia ehotzearen truke, errotariak eramandako garitik hamarretik bat kendu ohi zuten. Gari-alea errotan eho ondoren, "galirina" edo ogirina etxera eraman ohi zen.

Baserri gehienetan egoten ziren ogirinarekin ogia egiteko behar ziren tresnak guztiak: galbahea, orromahaia, ogia erretzeko labea. Galbahean pasatzea, ogirinak zuen zahia kentzeko izaten zen. Gero, ogirinarekin eta urarekin oreia egin eta legamia nahasi ondoren, ordu batzutan oreia edo masa altxatzen zapi batez estalita utzi behar zen. Oreia altxatzeko behar zen denbora pasa ondoren, ahal bezainbat ogi egin ohi zen. Ogi horiek, etxe atarian edo barrenean egon ohi zen labean sartzen ziren erretzeko.

Baserriarik gehienetan, etxean egin eta erretako ogia jan ohi zen. Ez zen, beraz, ogirik kanpoan erosten.

ARTO-LANAK

ARTO EREITEA

Artoa ereiteko, lehenbiziko lana lurra prestatzea izan ohi zen. Horretarako, lurra GOLDatu, ARREA pasatu eta ALPERRArekin berdindu ondoren, MARKA izeneko lau hortz zituen egurrezko tresna baten bidez artoa ereiteko arrastoak egiten ziren. Markaren zabaleroa bi metro ingurukoa izaten zen, eta lau hortzak bata besteagandik gutxi gorabehera metro erdi bateko tartea izaten zuten. Egindako arrasto horietan zuloa egin eta artoa ereiteko eta lurrez estaltzeko ESKU PALA izeneko egurrezko tresna bat erabiltzen zen. Gehiengtan artoa babarrunarekin batera ereiten zen. Zulo bakoitzean 4 artale eta 2 babarrun-ale sartzen ziren. Gero biak elkarrekin erne eta handitzen ziren, eta udazkenean batera bildu.

Artoa noiz erein behar zen adierazteko bazen esaera bat:

"San Jurgi artoa ereiteko goizegi,
San Markos artoa ereinda balego".

Maiatza baino lehen, beraz, artoak ereinda egon behar zuen.

ARTAJORRA

Artoa eta babarrunak ernetzen direnean eta lurraren azalera agertzen direnean, artajorra lanak hasi ohi dira.

Lehenik, inguruan sortzen zaizkien belar eta beste landareak kendu eta landareak garbi eta bakandurik uzteko.

Gerora, landareak handiagoak egiten zirenean, babarrunaren aihenak artoaren zuztarrean katigatu eta bilduta utzi ohi ziren.

Bestalde, arto eta babarrun errenkaden artean bost-hortzeko edo zazpi-hortzeko tresna bat pasa ohi zen tarteko lurrak arto eta babarrun landareetara bildu ahal izateko. Bost edo zapi-hortzeko tresna hori zaldi, mando edo asto batek tiraka eramane ohi zuen.

ARTOA BILTZEA

Udazkenean, ahal bazen Santu Guztien eguna baino lehen, artoa eta babarrunak bildu ohi ziren. Horretarako, auzo bakoitzean, artoa biltzen laguntzera joaten ziren inguruko etxetako gazte eta helduak.

Arto-koskolak gehienetan gurdian bildu ohi zituzten, eta babarrun lekak saski edo zakutan. Bildutako arto eta babarrunak ganbarara jasotzen ziren. Horretarako, gurdiak kartolak edo gurto-holak (aldamenetan eta atze-aurretan zutik jarritako ohol batzuk) eraman ohi zituen. Era horretan gurdia kaxa handi bat bihurturik gelditzen zen eta han sartu ohi ziren arto-koskolak.

ARTO-ZURIKETA (ARTA-ZURIKETA)

Artoa eta babarruna ganbaran bildu ondoren, eta Santu Guztietan hasi eta Eguberriak baino lehen, babarruna-aletzea eta arto-zuritzea egiten zen.

Afalondoan, auzoko zenbait neska eta mutil gazte biltzen ziren arto-zuritze edo arta-zuriketarako.

Lan hau egitean, toki askotan errosarioa errezatu ohi zen. Etxeko amonak edo etxekoandre gazteak zuzentzen zuen errosarioaren errezoa. Beste toki batzutan, ipuin eta gertaera zaharrak kontatu edo bertsoak abesten zituzten. Egin behar zen lana egin ondoren, gaztaina erreak eta sagardoa eskaintzen zitzaizkien lana egitera biltzen ziren gazteei. Ondoren, gazteen arteko zenbait jolas egin ohi ziren: artoa zuritu eta pilaturik gelditzen ziren arto orrien pilara elkar botatzen ahaleginak eginez edo pilaren gainetik saltoka eta brinkoka. Horrela, amaitzen ziren arto-zuriketaren lanak.

Azkenik, artoa errotara eramaten zen, ehotzeko; gero, errontan ehotako artirin horrekin taloak edo arto-ogia egin ohi zen.

Taloak eta arto-zopak izaten ziren neguko janarien artean ezagunenetakoak eta oinarritzkoenak. Artirina erabili ohi zen hegazti eta abereei zaperoa eginda emateko ere.

"SAGAR-LANAK"

Udazkenean, sagarrak heldu eta biltzen zirenean, jateko gordetzen ez zirenak, sagardoa egiteko bildu ohi ziren.

Sagarrak bildu ondoren, zakuetan edo gurdian sartu eta tolarearen zegoen etxera eramaten ziren. Baserri gehienetan egoten zen tolarearen.

Tolarean sagarra bota ondoren, txikitu eta xahutu egiten zen bere zumu guztia kendu arte.

Tolaretik irteten zen salda edo zumu hori upeletan sartu ohi zen.

Upelean sartu eta berehala edaten den sagardoari "pitarra" edo "pitzarra" izena eman ohi zaio. Sagardo hori oso gozoa, askoren ustez gozoegia, izan ohi da, oraindik irakin edo fermentatu gabe dagoelako.

Gerora, upelean hilabete pare bat pasa ondoren, sagardoa irakiten duenean, "txotxetik" edaten da, upel bertatik alegia, ondoren ziri batekin upelean egindako zuloa ixten delarik. Uda-berrian, maiatzean beranduenik, upeletan dagoen sagardoa boteilatan sartzen da eta leku batera eta bestera banatzen.

AUZOLANA

Izen honekin, herritarren artean, ordaindu gabe egiten zen lanari zeritzaion. Gaur egun jarraitu arren, lehen askoz ere ohitura handiagoa zegoen, batez ere lan hauetarako:

- Bide berriak egiteko edo zaharrak konpontzeko.
- Eliza, eskolak edo herriko beste zenbait etxe egokitze.
- Herritar baten ezbehar bati erantzunez: etxe bat erre, udaldiak, etab.

- Ur bilaketetan.

- Familia bat ezbehar baten aurrean aurkitzen zenean: baserriko gizona gaiso zegoenean, hango lanetan lagunduz, etab.

Auzolanean egin beharreko lana, herri osoaren onerako zenean, etxe guztietatik norbaitek joan beharra izaten zuen, eta udalak deiak banatzen zizkien herriko biztanleei.

Auzo barruko lana zenean berriz, auzoko bizilagunek bakarrik parte hartuko zuten.

Auzolan gehienak nahi ta nahiez egin beharrekoak ziren. Norbaitek joateko eragozpenik izaten bazuen, bere ordezt beste norbait bidali behar zuen.

Lan egiteko tresnak: aitzur, aizkora... norberak eramaten zuten. Idi beharra zegoenean, inguruan zeuden baserrikoa izaten ziren edo ta, lan honen bidez mesede handiena izango zuten baserritarrenak.

Batzutan, auzolana aurrera eramateko lehergailuak behar izaten zuten: bide erdian harkaitz bat agertzen zenean, zulo bat egitean oztopo bat aurkituz gero, etab. Orduan udalak beharrezko lehergailuak ekartzen zituen.

Herriko udalak auzolanean parte hartzen zutenei, arrantxoa ordaintzen zien. Gehienetan ardoa eta ogia izaten zen.

